

HAURREN ESKUBIDEEN DEKLARAZIOA

1.- Deskribapena

Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsalari buruzko Mafaldaren biñetak margotzean datza.

2.- Helburuak

- Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsala modu dibertigarri batean ezagutzea.

3.- Partaideak

5 urtetik aurrera.

4.- Materiala

Margoak.

Eranskina.

5.- Garapena

Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsalari buruzko Mafaldaren biñetak banatuko dira. Margotzen dituztenean, haurrei biñeta bakoitzaren esanahia azalduko zaie hizkuntza laño baten bidez.

6.- Ebaluazioa

Biñetak margotzen ongi pasa al duzue? Zein biñeta iruditu zaizue dibertigarriena?

Haurren Eskubideen Deklarazio Unibertsala aztertu eta baloratuko da; deklarazioa egitera eraman zuten arrazoiak ikertuko dira.

7. Iturria

Haurren Eskubideei buruzko hitzarmena zela-eta Quinok UNICEFentzat egindako marrazkiak.

ERANSKINAK

1. eranskina

Haurren Eskubideen Deklarazioa



ETA ZODIAKOKO ZEINUAZ AHAZTU EGIN DIRA, JAKINA! ORAIN, LEON JAIOTAKO EDOZEINEK ARGIA ARIESEN IKUSI GENUENON BERDINA DELA PENTSATUKO DU! BAITA ZERA ERE! BERDINTASUNARENA EZ DAGO GAIZKI, BAINA BERDINTASUNAK ETA BERDINTASUNAK DAUDE!

BA, ONGI HASI GARA!

1. Berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edo nazionalitatea kontuan hartu gabe.



ETA BATEZ ERE, LEHENGO BABES METODO BATZUEN AURKAKO BABESA
ADINGABEAK BABESTEKO EGOITZA

2. Babes berezia jasotzeko eskubidea, fisikoki, mentalki eta sozialki osasuntsu eta libre haz daitezen.



NI BATMAN DEITU NAHI NINTZEN! ETA SUITZARRA IZAN NAHI NUEN,
EGUN OSOA TXOKOLATEA JATEN PASATZEKO!

3. Izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea.



KAIXO, DESPOTISMOAREN AURKAKO TXERTOIA HARTZERA GATOZ.

4. Elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea.



HAUR EZINDUEK NIRE AMA HAINBESTE HUNKITZEN DUTE! HAINBESTE MAITE DITU, NON BERE SENSIBILITATEAK EZIN DUEN JASAN EXISTITZEN DIRELA GOGORATZEAK ERAGITEN DION MINA! AMA GAIXOA!

BAI, HORRELAKO ON-PUSKA ASKO ETA ASKO DAGO.

5. Urritu fisiko edo psikikoek hezkuntza eta arreta bereziak jasotzeko eskubidea.



ETA HAINBESTE MAITA GAITZATEN LORTZEAGATIK EZ AL DIGUTE EZER ORDAINDU BEHAR?

6. Familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea.



HEZKUNTZA JASOTZEKO DUGUN ESKUBIDEA HAIN DA EZTABAIDAEZINA...

ARIMA ESKUZABALEN BATEK KENDU EGINGO DIGUN ESPERANTZARIK TXIKIENA ERE EZ ZAIGU GERATZEN!

7. Doako hezkuntza baterako eskubidea. Ongi pasatzeko eta jolasteko eskubidea.

¿O SEA QUE EN CASO DE
HAMBRUNA MUNDIAL, TODOS,
TODOS, TODOS LOS HELADOS
DE FRESA CON CREMA NOS
LOS DARÍAN PRIMERO A
NOSOTROS?



ORDUAN, MUNDO OSOA GOSEZ HILTZEN EGONGO BALITZ, MARRUBI ETA
ESNEGAINAZKO IZOZKI GUZTI-GUZTIAK LEHENENGO GURI EMANGO AL
LIZKIGUTE?

8. Arrisku-egoeratan arreta eta laguntza jasotzen lehenak izateko eskubidea.

TOTAL, TODO ESO YA
TENDREMOS TIEMPO DE
SUFRIRLO CUANDO
SEAMOS GRANDES



HORI GUZTIA HANDIAK GARENEAN SUFRITZEKO NAHIKO DENBORA
IZANGO DUGU

9. Abandonatua eta lanean esplotatua ez izateko eskubidea.



ETA ESKUBIDE HORIEK ERRESPETATU EGIN BEHAR DIRA, E! EZ DADILA GERTATU HAMAR AGINDUEKIN BEZALA!

10. Munduko pertsona guztien arteko elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.

SARRERA

Kontuan izanik Nazio Batuetako herriek Gutunean oinarritzko giza eskubideengan zein gizakiaren duintasun eta balioagan duten fedea berretsi dutela, eta aurrerapen soziala bultzatzeko eta bizi-maila askatasunaren ikuskera zabalago batetik hobetzeko erabakia hartu dutela.

Kontuan izanik Nazio Batuek aldarrikatu dutela Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean pertsona orok deklarazio horretan aipatutako eskubide eta askatasun guztiak dituela, arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, iritzi politikoak edo beste edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, maila ekonomikoa, leinua edo beste edozein baldintza bereizi gabe.

Kontuan izanik haurrak, heldutasun fisikoa eta adimen-heldutasuna falta zaion neurrian babes eta zaintza bereziak behar dituela, bai eta babes legal egokia ere, jaio aurretik zein ondoren.

Kontuan izanik babes berezi horren beharra Haurren Eskubideei buruzko 1924ko Genevako Deklarazioan adierazi zela, eta Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalean nahiz haurren ongizateaz arduratzen diren erakunde espezializatuak eta nazioarteko erakundeak eratzeko hitzarmenetan aitortuta dagoela.

Kontuan izanik gizateriak haurrei hoberena eskaini behar diela.

Batzar Nagusiak Haurren Eskubideen Deklarazio hau aldarrikatzen du, haurrek haurtzaro zoriotsu bat izan dezaten, eta Deklarazioan aipatzen diren eskubide eta askatasunez goza dezaten, beren eta gizartearen mesedetan, eta gurasoei, gizon-emakumei nahiz erakunde, tokiko agintaritzak eta gobernu nazionalak eskatzen die aipatutako eskubideak aitortu dituzaten eta haien alde lan egin dezaten, legegintzako neurriak eta beste neurri batzuk pixkanaka ezarriz, honako printzipio hauen arabera:

1. printzipioa

Haurrak deklarazio honetan aipatutako eskubide guztiez gozatuko du. Eskubide horiek haur guztiei aitortuko zaizkie, salbuespenik gabe eta haurraren zein bere familiaren arraza, kolorea, sexua, hizkuntza, erlijioa, iritzi politikoak edo beste edozein iritzi, jatorri nazionala edo soziala, maila ekonomikoa, leinua edo beste edozein baldintzagatik haurra bereizi edo diskriminatu gabe.

2. printzipioa

Haurrak babes berezia izango du eta legearen zein beste bitarteko batzuen bidez hainbat aukera eta zerbitzu emango zaizkio, garapen fisiko, mental, moral, espiritual eta sozial osasuntsua eta normala izan dezan, askatasun eta duintasuneko baldintzetan. Xede horretarako legeak ateratzerakoan, haurraren interesei emango zaie lehentasuna.

3. printzipioa

Jaiotzen den unetik, haurrak izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea du.

4. printzipioa

Haurrak gizarte-segurantzaren onurez gozatuko du. Osasuntsu hazteko eta garatzeko eskubidea izango du; beraz, haurrari zein bere amari arreta berezia eskaini beharko zaio, jaio aurretik nahiz ondoren. Haurrak elikadura, etxebizitza, aisia eta osasun-zerbitzu egokiez gozatzeko eskubidea izango du.

5. printzipioa

Fisikoki edo mentalki ezindua dagoen haurrak edo eragozpen sozialen bat duen haurrak bere kasu partikularrak eskatzen dituen tratamendua, hezkuntza eta arreta berezia jasotzeko eskubidea izango du.

6. printzipioa

Bere nortasunaren garapena osoa eta orekatua izan dadin, haurra maitatua eta ulertua sentitu behar da. Ahal den neurrian, bere gurasoen babespean eta ardurapean haziko da, maitasunezko eta segurtasun moral eta materialezko giro batean; ezohiko kasuetan izan ezik, haur txiki bat ez da inoiz bere amarengandik bananduko. Gizarteak eta agintari publikoek familiarik gabeko haurrak edo bizirik irauteko adina baliabiderik ez dutenak zaindu beharko dituzte. Familia ugarietara seme-alabak mantentzeko estatu-dirulaguntzak edo beste mota batzuetakoak ematea komeni da.

7. printzipioa

Haurrak hezkuntza bat jasotzeko eskubidea du; hezkuntza hori doakoa eta derrigorrezkoa izango da, oinarrizko etapetan behintzat. Hezkuntzak haurrari kultura orokor bat emango dio eta, aukera-berdintasunezko baldintzetan, bere gaitasunak eta burubidea nahiz erantzukizun moral eta sozialaren zentzua garatzea ahalbidetuko dio, gizarteko kide erabilgarri bat izatera hel dadin. Haurraren lehentasunezko interesa haurra hezteaz eta orientatzeaz arduratzen diren pertsonen printzipio gidaria izan beharko da; erantzukizun hori gurasoei dagokie.

Haurrak jolasaz eta aisiaz erabat gozatzeko eskubidea du, eta jolas horiek hezkuntzaren xedeetara zuzendurik egon beharko dira; gizarteak eta agintari publikoak eskubide hori bermatzen saiatuko dira.

8. printzipioa

Edozein egoeratan, haurrak lehenak izan behar dira babesa eta laguntza jasotzen.

9. printzipioa

Haurra babestu egin behar da abandonatu, gaizki tratatu eta esplotatu ez dezaten. Haurrekin ezingo da inolako salerosketarik egin.

Haurrari ez zaio lan egiten utziko gutxieneko adin egokia izan arte. Haurrak ezingo du bere osasunari edo hezkuntzari kalte egiten dion edo bere garapen fisiko, mental nahiz morala oztopatzen duen zeregin edo lanik egin, bere kabuz zein behartuta.

10. printzipioa

Haurra arrazagatiko diskriminazioa, erlijioagatiko nahiz beste edozein motatakoa bultza dezaketen praktiketarik babestu behar da. Elkar ulertzea, tolerantzia, herrien arteko adiskidetasuna, bakea eta senidetasun unibertsala sustatzen dituen hezkuntza eman behar zaio, eta bere indarrak eta gaitasunak bere hurkoen zerbitzura jartzen ikasi behar du.